

**Iruzur fiskalaren kontrako
borrokarako batzordea**

**Comisión de lucha contra el
fraude fiscal**

**Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalari buruzko Urteko
Txosten Integratua.
2024. urtea**

**Informe anual integrado sobre el fraude fiscal en la Comunidad
Autónoma de Euskadi.
Año 2024**

**Iruzur fiskalaren kontrako
borrokarako batzordea**

**Comisión de lucha contra el
fraude fiscal**

**2024. urtean Euskadiko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan
Bateratuaren esparruan garatutako jardueretako emaitzei buruzko txostena.**

**Informe de resultados de las actuaciones del Plan Conjunto de Lucha contra el
Fraude Fiscal en el País Vasco realizadas durante el año 2024.**

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak –Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien ordezkariak baitu– sortu zuen, 2013ko urriaren 14ko erabakiz, urte horretako irailaren 26an Eusko Legebiltzarrak emandako Ebazpen bati erantzuteko; ebazpen horrek iruzur fiskalaren aurkako lankidetzak-estrategia bat normalizatzeko eskatzen zuen.

Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako beste batek osatzen dute eta honako eginkizun hauek ditu: i) Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratua egitea urtero, eta, horretan, irizpide orokorrak eta egin beharreko jarduketak koordinatuak zehaztea, eta ii) urteko txosten integratua igortzea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruz, eta, horretan, aipatutako urteroko plan bateratuetako jarduketak emaitza eta efikazia ebaluatzea, eta gauzatze-maila zehaztea.

Sortu zenetik, Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordeak hamabi plan bateratu onartu ditu, urtekoak; plan horiek osagarri zaizkie iruzurraren aurka borrokatzeko edo egiaztatzeko foru-ogasun bakoitzaren berariazko planei. Plan bateratu horietako bakoitza ebaluatzen dute edo hurrengo urtean ebaluatuko dute, iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratuaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratuak irizpide orokorrak eta 2024an egin beharreko jarduketak koordinatuak jasotzen ditu. Batzordeak onartu zuen plana, 2024ko martxoaren 20an, eta hartan ordezkariak erakundeei helarazi zitzaizkien, bakoitzaren batzar nagusiei eta Eusko Legebiltzarrari jakinarazteko. 2024ko plan bateratu hori ebaluatzen behar da emaitza-txosten honen bidez.

Comisión de lucha contra el fraude fiscal

La Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco fue creada mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE) –Órgano con representación del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales– de fecha 14 de octubre de 2013, en respuesta a una Resolución del Parlamento Vasco de 26 de septiembre del mismo año que instaba la normalización de una estrategia colaborativa en Euskadi contra el fraude fiscal.

Está compuesta por un representante de cada Diputación Foral y un representante del Gobierno Vasco y entre las funciones que tiene encomendadas están: i) la elaboración anualmente del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal, determinando sus criterios generales, así como las actuaciones coordinadas a realizar, y ii) la emisión de un Informe anual integrado sobre el fraude fiscal en la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE), evaluando el resultado y la eficacia de las actuaciones de los referidos Planes anuales conjuntos, así como el grado de su realización.

Desde su creación, la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal ha aprobado doce Planes anuales conjuntos, que vienen a complementar a los propios Planes de lucha contra el fraude o de comprobación, específicos de las respectivas Haciendas Forales. Cada uno de estos Planes conjuntos ha sido o será evaluado en el año siguiente a través de su correspondiente Informe Anual Integrado sobre el Fraude Fiscal.

El Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco, que contiene los criterios generales y las actuaciones coordinadas a realizar durante 2024, fue aprobado por la Comisión el 20 de marzo de 2024 y elevado a las instituciones representadas en ésta para dar cuenta a las respectivas Juntas Generales y al Parlamento Vasco. Es éste, el Plan conjunto 2024, el que procede evaluar mediante el presente Informe de resultados.

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

Eusko Legebiltzarraren Ebazpenean, urteko plan bateratuek nolako egitura izan behar duten zehazten da; horren arabera, 2024ko planak, aurrekoek bezala, egin beharreko ekintzak hiru motatan sailkatzen ditu: i) informazioa lortzeko ekintzak, ii) prebentzio-ekintzak, eta iii) erregularizazio- eta kobrantza-ekintzak.

Azpimarratzekoa da Foru Ogasun bakoitzeko iruzurraren aurka borrokatzeko edo zerga-egiaztapenerako planaren barruan jasoko direla, batetik, Zerga-iruzurraren aurka Borrokatzeko Euskadiko Batzordeak adostutako jarduerak eta lehentasunak, eta, bestetik, Foru Ogasun bakoitzak bereziki interesgarritzat jotzen dituen jarduera espezifikoak. Horrela bada, baliteke desberdintasunak egotea lurralde historikoetako plan espezifikoaren eta Plan Bateratuaren artean, baina horrek ez du esan nahi emaitzek funtsik ez dutenik.

Informazioa lortzeko eremuari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, adierazi behar da truke-jarduera handia egon dela, eta mantendu egin dela foru-ogasunek hainbat informazio-iturri gaituren bidez lortzen dituzten datuen kopurua. Hori lagungarria da zergadunek aitortutako datuetan inkongruentziak aurkitzeko, bai eta erregularizazio- eta kobrantza-jarduketak ongi hautatzeko ere.

Horrez gainera, tributu-administrazioak iruzurgile izan daitezkeen pertsonen buruz gero eta gehiago jakiteak lagundu dezake haietako askok beren borondatez bete ditzaten tributu-betebeharrak. Hori horrela, jarduketa hauek, batetik, prebentzio-helburua dute, eta, bestetik, tributu-zorra erregulatu eta kobratzeko helburu garbia. Ondorioz, era honetako jarduketak funtsezkoak dira edozein tributu-administraziotarako, baldin eta eraginkortasunez jardun nahi badu iruzur fiskalaren kontra.

Comisión de lucha contra el fraude fiscal

Tal como prescribe la Resolución del Parlamento Vasco en relación con la estructura que con carácter general debe definir los planes conjuntos anuales, el Plan de 2024, igual que los anteriores, categoriza las acciones a realizar en tres tipos: i) acciones de obtención de información, ii) acciones preventivas, y iii) acciones de regularización y cobro.

Es importante destacar que el Plan de Lucha contra el Fraude o de comprobación tributaria de cada Hacienda Foral incluye tanto las actuaciones y prioridades que se han consensuado en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal de País Vasco como las actuaciones específicas que se consideran de especial interés por parte de cada Hacienda Foral, por lo que los planes específicos de cada Territorio Histórico pueden diferir del Plan Conjunto sin que esa circunstancia deba interpretarse como signo de inconsistencia de los resultados.

En lo que respecta al área de obtención de información, como en años anteriores se registra una importante actividad de intercambio, manteniéndose un gran volumen de datos obtenidos por las Haciendas Forales a partir de las distintas fuentes de información habilitadas, lo que facilita la detección de incongruencias de los datos declarados por las personas contribuyentes y la realización de una buena selección de las actuaciones de regularización y cobro.

Al mismo tiempo, el conocimiento por parte de las potenciales personas defraudadoras de la cada vez mayor posesión de información por parte de la Administración tributaria puede ayudar a que muchas de ellas decidan cumplir voluntariamente sus obligaciones tributarias. Así, estas actuaciones tienen, por un lado, un cierto efecto preventivo, y por otro, un claro objetivo de facilitación de la regularización y cobro de la deuda tributaria. En consecuencia, son fundamentales para cualquier Administración Tributaria que pretenda ser eficiente en la lucha contra el fraude fiscal.

Plan bateratua egituratzen den bigarren ekintza mota prebentzio-ekintzak dira, hots, zenbait neurri, askotarikoak, iruzurra egitea zailtzen eta horrek eragindako arriskuak txikitzen saiatzen direnak. Neurri horien barruan daude arrisku fiskaleko egoera jakin batzuetara sartzeko kontrolak, zerga-jardunbide egokiak sustatzeko jarduketak eta balio zibiko-tributarioak hezkuntzan eta kontzientzian txertatzera bideratutakoak. Funtsezkoak dira iruzurraren kontrako borrokan; izan ere, egoki ezartzen badira, zergapekoek iruzurrezko jarduketak egitea saihestu ahalko da, aurea hartuz.

Ekintza horiek zailagoak dira ebaluatzen, horietako askok ez baitute berehalako emaitzarik, baina ezinbestekoak dira iruzurrerako joera egituratik beretik murrizteko, eta eragin zuzena dute erregularizazio- eta kobrantza-jarduketetan: iruzurra saihesten bada, hots, iruzurrik ezean, ez da baliabiderik erabili behar erregularizazio- eta kobrantza-jarduketak egiteko.

Aurreko urteetan bezalaxe, 2024ko plan bateratuak, berriz, bi proiektu nabarmendu zituen bereziki iruzur fiskalaren prebentzio ekintzen arlo horren barruan: zerga-heziketako proiektua eta TicketBAI proiektua. Txosten honen II. kapituluan, besteak beste, 2024an bi proiektuetan egindako jarduketan eta aurrerapenen berri eman da.

Horrez gain, modu sistematikoan gauzatu da, eta txosten honetan jaso, iruzurra prebenitzeko jardueren multzo handi bat, 2024ko plan bateratuan (II.3. ataletik II.5. atalera) jasotako. Aipagarriak dira zerga-betebeharrak borondatez betetzea sustatzeko informazio- eta laguntza-zerbitzuak emateari buruzkoak.

Azkenik, erregularizazio- eta kobrantza-ekintzak, hots, kudeaketa eta ikuskapen organoek bideratzen

El segundo tipo de acciones en que se estructura el Plan conjunto, las acciones preventivas, son medidas de naturaleza diversa que tratan de dificultar la comisión de fraude y minorar los riesgos de que se produzca. Incluyen desde controles de acceso a determinadas situaciones de riesgo fiscal hasta actuaciones de promoción de buenas prácticas tributarias y concienciación y educación en valores cívico-tributarios. Son esenciales dentro del plan de lucha contra el fraude porque su correcta implantación permitirá evitar la realización de actuaciones fraudulentas de las personas obligadas tributarias, adelantándonos a su comisión.

Se trata de un tipo de acciones más difíciles de evaluar, porque muchas de ellas no tienen un resultado inmediato, pero son fundamentales para reducir de forma estructural la propensión al fraude y tienen un efecto directo en las actuaciones de regularización y cobro: si se previene el fraude, si no se comete, se haría innecesaria la dedicación de recursos para realizar actuaciones de regularización y cobro.

Al igual que en años anteriores, el Plan Conjunto 2024 volvió a destacar los dos principales proyectos de programación plurianual incluidos en esta área de acciones preventivas del fraude fiscal: el proyecto de educación tributaria y el proyecto TicketBAI. En el capítulo II de este Informe se da cuenta, entre otras cosas, de las actuaciones y los avances experimentados a lo largo de 2024 en ambos proyectos.

Adicionalmente se computa en este Informe una importante batería de actuaciones preventivas del fraude recogidas en los apartados II.3º a II.5º del Plan Conjunto de 2024. Son destacables las relativas a la prestación de servicios de información y asistencia dirigidas a promover el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales.

Por último, en el área de acciones de regularización y cobro, es decir, aquellas

dituztenak zergapekoen egoera fiskalaren berrikuspen, ikerketa eta egiaztapenari begira, edo, hala badagokio, erregularizaziora, zorraren ordainketa lortzeko. Arlo horri dagokionez, III. kapituluan biltzen da 2024ko balantzea, hala jarduera-mailari dagokionez, nola aurkitutako zorrari dagokionez. Beste batzuetan aipatu den moduan, aurkitutako zorraren kopurua, neurri batean, ausazko osagai baten mende dago, iruzurraren kontrako borrokan parte hartzen duten zerbitzuen jarduera-maila edozein dela ere, eta, gainera, neurri batzuk epe ertainerako izateak eragina izan dezake horretan; izan ere, horietako batzuk ekitaldi jakin batean abiatuta, litekeena da ondorioak ekitaldi horretara bakarrik ez mugatzea, edo are, ekitaldi horretan eraginik ez izatea, baizik eta etorkizunean. Horregatik, esanguratsuagoa da emaitzak denborazko ikuspegi zabalagoaz irakurtzea urterokoaz baino.

Gainera, komenigarria da 2024ko Plan Bateratuak berriro ere bereziki nabarmendu zituen hainbat helburu zehatz aipatzea: i) herritarren kontzientzia fiskala indartzea, ii) Euskal Autonomia Erkidego osoan TicketBAI sistema behin betiko ezartzeko prozesuan jarraituko da, eta haren funtzionamenduaren jarraipena egingo da eta kontrolei eutsiko zaie, behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko, iii) zergadunei beren betebeharrak fiskalak betetzen laguntzeko jarduerak garatzea eta iv) zergapekoei buruzko tributu-arloko informazio garrantzitsua lortzera, normalizatzea eta aztertzea bideratutako jarduketak.

Zenbatekoa ikuspegitik, –ekitaldi horretako Plan Bateratuan jasotako neurriei dagokienez – 2024an aurkitutako iruzurraren zenbatekoa 728 milioi euro izan da. Hau da, foru-ogasunek kudeaketa

encaminadas a la comprobación, investigación o verificación y, en su caso, regularización de la situación fiscal de las personas obligadas tributarias por los órganos de gestión e inspección, así como aquellas actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación para obtener el pago de la deuda, en el capítulo III del Informe se recoge el balance de 2024, tanto en términos de nivel de actividad como en términos de deuda descubierta. Como se ha señalado en otras ocasiones, la cifra de deuda descubierta depende en parte de un componente aleatorio independiente del nivel de actividad de los servicios que participan en la lucha contra el fraude y, además, puede estar afectada por la orientación a medio plazo de algunas medidas que, adoptándose en un ejercicio concreto puede que no agoten sus efectos en ese mismo año o incluso que ni siquiera tengan incidencia en él, sino que se proyecten a futuro. Por ello tiene mayor significación una lectura de los resultados con una perspectiva temporal más amplia que la estrictamente anual.

Es procedente además una referencia a varios objetivos concretos que el Plan Conjunto de 2024 volvió a destacar de forma especial: i) el reforzamiento de la conciencia fiscal de la ciudadanía, ii) la continuación con el proceso de implantación definitiva del sistema TicketBAI en todo el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el mantenimiento de los controles y el seguimiento de su funcionamiento, en aras a verificar su correcta aplicación, iii) desarrollo de las actuaciones de asistencia a los y las contribuyentes en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y iv) actuaciones dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con trascendencia tributaria de las personas obligadas tributarias.

Desde una perspectiva cuantitativa, el cómputo de deuda descubierta en 2024, en relación con las medidas contenidas en el Plan Conjunto de este ejercicio, asciende a 728 millones de euros, lo que representa un 4,5% del importe total recaudado por

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

propioko tributu itunduen bidez 2024an bildutako zenbateko osoaren % 4,5.

Jarraian azaltzen dira ateratako emaitzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratuak 2024rako ezarritako egitura eta sistematika kontuan hartuta.

Comisión de lucha contra el fraude fiscal

las Haciendas Forales en 2024 por tributos concertados de gestión propia.

Seguidamente se exponen los resultados obtenidos atendiendo a la estructura y sistemática establecida por el citado Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude en el País Vasco para el año 2024.

I. INFORMAZIOA ESKURATZEKO JARDUERAK. ACTUACIONES DE OBTENCIÓN DE INFORMACIÓN.

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratuak zenbait jarduketa-arlo koordinatu ezarri zituen 2024rako hiru foru-aldundientzat, xedetzat hartuta zergapekoei buruz zergen arloan garrantzia duen informazioa lortzea, normalizatzea eta aztertzea. Hauek dira:

I.1. Informazioaren kalitatea hobetzea eta datu-bolumen handiak prozesatzeko plataforma teknologikoa garatzea.

Plan Bateratuan azaldu zen moduan –planaren emaitzak ebaluatzen dira txosten honetan–, ogasunek informazio ekonomiko ugari izateaz gain, informazio horrek osoa eta kalitatezkoa izan behar du.

Hori horrela, helburu hauek ezarri ziren 2024. urterako:

i) zerga-aitorpenak aurkeztean iragazki eta kontrol informatikoak areagotzea, Ogasunaren datu-baseetan informazio okerra edo inkoherentea sartzen ez uzteko.

ii) 2023an foru ogasunetako sistemetan dagoen informazioa arazteko barne-prozesu informatikoak aritzea, bereziki identifikazio-elementuen eta zentsu-elementuen kalitatea hobetzeko.

iii) datu-bolumen handiak prozesatzeko plataforma teknologikoak garatzeari dagokionez, zerga-arloko auditoretza informatikoaren kofigurazioa, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoen sistema informatikoak egiaztatzerako bideratutako jarduera profesionala dela, Foru Ogasunetako langileek sistema informatikoan erregistratutako edo idatzitako eragiketa ekonomikoen osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarritutako osatzeko beharrezko ebidentziak lortzeko. Sistema informatiko horietatik eratortzen dira

El Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude en el País Vasco estableció para el año 2024 las siguientes áreas de actuación coordinadas de las tres Diputaciones Forales, dirigidas a la obtención, normalización y análisis de la información con trascendencia tributaria de las personas obligadas tributarias:

I.1º. Mejora de la calidad de la información y desarrollo de plataformas tecnológicas para el procesamiento de grandes volúmenes de datos.

Tal como se expresó en el Plan Conjunto cuyos resultados se evalúan en este informe, no solo es necesario que las Haciendas dispongan de un gran volumen de información, sino que además esta información debe ser completa y de calidad.

En este contexto, durante 2024 se ha incidido en las siguientes actuaciones que se señalaron en el Plan:

i) ampliación de filtros y controles informáticos en la presentación de las declaraciones tributarias, que impidan la entrada en las bases de datos de Hacienda de información errónea o incoherente

ii) realización de procesos informáticos internos de depuración de la información existente en los sistemas de las haciendas forales, orientados en particular a mejorar la calidad de los elementos identificativos y censales.

iii) en relación con el desarrollo de plataformas tecnológicas para el procesamiento de grandes volúmenes de datos, progresiva configuración de la auditoría informática en el ámbito tributario como una actividad profesional orientada a la verificación de los sistemas informáticos de las y los obligados tributarios que desarrollan actividades económicas, con el fin de obtener las evidencias necesarias sobre la integridad y exactitud del registro o anotación de las operaciones económicas en los sistemas informáticos, de los que derivan los estados

kontabilitateko egoera-orriak eta zerga-aitorpenak, era guztietako prozesu eta kontrolak egitearen bidez, tresna informatiko egokien laguntzaz eta Europar Batasunean gomendatutako estandarren eta lan-metodologiaren arabera.

iv) baliabide materialak eta giza baliabideak indartzea, datu-bolumen handiak prozesatzeak eta datu-zientziako teknika berriak aplikatzeak dakartzaten erronkei aurre egin ahal izateko, Foru-ogasunek jaso beharreko informazio-bolumena inoiz ez bezala handituko denez, eta kontuan hartuta TicketBAI eta BEZean Berehalako Informazio Hornidura ezarri direla eta nazioarteko informazio-iturriak garatu eta zabaldu direla.

I.2. Zergetarako garrantzitsua den informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak erabiltzea Foru Ogasunetako pertsona eta entitate zergadunek atzerrian dituzten ondasun eta eskubideak hautemateko.

Nazioarteko hitzarmen eta araudi horiek berdin behartzen dituzte foru ogasunak, zeinek, 2024an, beren eskumenen esparruan, hitzarmen-arau horiek betetzeko behar zen zerga-informazioa bildu baitute. Informazio hori herrialde bakoitzeko agintari eskudunen eskutara heltzeko bidea Zerga Administrazioako Estatu Agentzia da (ZAEA); foru-ogasunek hari bidaltzen diote informazioa, informazio-trukerako alorretan ezarritako prozeduren arabera.

Alderantziz, foru-ogasunek beste herrialde eta estatu kideek, nazioarteko hitzarmenak direla kausa, eman beharreko foru-eremuko informazioa eskuratzeari dagokionez, 2024an, ZAEAREN bitartez, atal honetan zehazten diren datuak eskuratu ahal izan dira.

contables y las declaraciones tributarias, mediante la realización de todo tipo de procesos y controles con la ayuda de las herramientas informáticas apropiadas y conforme a los estándares y metodología de trabajo recomendados en la Unión Europea.

iv) refuerzo de los medios materiales y humanos, para dar solución a los retos que plantea el procesamiento de grandes volúmenes de datos y la aplicación de nuevas técnicas de ciencia de datos, en un escenario caracterizado por el crecimiento sin precedentes del volumen de información a recibir por las Haciendas Forales, derivado de la implantación de TicketBAI y del Suministro Inmediato de Información (SII) en el IVA, así como del desarrollo y ampliación de las fuentes de información de ámbito internacional.

I.2º. Explotación de los acuerdos internacionales de intercambio de información con trascendencia tributaria para la detección de los bienes y derechos localizados en el extranjero, de titularidad de personas y entidades contribuyentes de las Haciendas Forales.

Dichos acuerdos y normativa de ámbito internacional comprometen también a las Haciendas Forales que, durante 2024, han recabado, en relación con sus competencias, la información de naturaleza tributaria necesaria para darles cumplimiento. El canal para que esta información llegue a las autoridades competentes de cada uno de los países correspondientes es a través de la Agencia Estatal de Administración Tributaria (AEAT), a quien las Haciendas Forales la transfieren según los procedimientos establecidos en las diferentes áreas de intercambio de información.

En sentido recíproco, en relación con los accesos de las Haciendas Forales a la información de ámbito foral que otros países y estados miembros deben suministrar en cumplimiento de los acuerdos internacionales, a través de la AEAT,

Zehazki, truke-eremuen arabera bereizketa eginez, hau da egoera:

i) FATCA - Foreign Account Tax Compliance Act (atzerriko kontuek zergak betetzeko legea).

Espainiako Erresumaren eta Amerikako Estatu Batuen arteko akordioa, nazioartean zerga-betetzea hobetzeko eta atzerriko kontuen zerga-konplimendurako Estatu Batuetako legea aplikatzeko, 2013ko maiatzaren 14an sinatu zen Madrilén, eta helburutzat du nazioarteko iruzur fiskalaren kontrako borrokan aurrera egitea, eta zergei buruzko informazioaren truke automatikoko sistema bat ezartzen du, bi estatuen arteko elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Akordio horren arabera, alde batetik, Espainiako finantza-erakundeek identifikatu egin behar dituzte Estatu Batuetako herritar edo egoiliar diren erakundeak edo pertsonen titulartasuneko eta kontrolpeko kontuak; bestetik, Espainiako zerga-administrazioari urtero eman behar zaio informazioa finantza-kontu horiei buruz, baita foru-eremuk zergapekoena ere.

Testuinguru horretan, foru-ogasunek araututakoaren arabera, foru-eskumeneko finantza-erakundeek betebeharra dute Estatu Batuetako pertsona jakin batzuek haietan irekitako finantza-kontuei buruzko informazioa emateko, aipatutako nazioarteko akordioan jasotako prozeduraren eta baldintzen arabera (290 eredu).

Foru-ogasunek irispidea izan dezaten Estatu Batuetako agintariek bidalitako foru-intereseko informazioa, ZAEArekin lankidetzan aritzeko gune neutro bat ezarri da (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabaki bidez berretsia, 2017ko uztailaren 19an), eta jarduera-protokolo bat erabaki, informaziorako sarbideak kontrolatzeko, segurtasuna bermatuta.

durante 2024 se ha tenido acceso a los datos que se detallan a continuación en este apartado.

En concreto, diferenciando por áreas de intercambio, la situación es la siguiente:

i) FATCA - Foreign Account Tax Compliance Act (Ley de cumplimiento voluntario de cuentas extranjeras).

El Acuerdo entre el Reino de España y los Estados Unidos de América para la mejora del cumplimiento fiscal internacional y la aplicación de la ley estadounidense de cumplimiento tributario de cuentas extranjeras, firmado el 14 de mayo de 2013 en Madrid, tiene por objeto avanzar en la lucha contra el fraude fiscal internacional y establece un sistema de intercambio automático de información con fines tributarios en el ámbito de la asistencia mutua entre ambos Estados.

Este Acuerdo establece, por un lado, la obligación de las instituciones financieras españolas de identificar las cuentas cuya titularidad o control corresponde a entidades o personas residentes o de ciudadanía estadounidense y, por otro lado, de suministrar anualmente a la Administración tributaria española información sobre dichas cuentas financieras, también de personas contribuyentes de ámbito foral.

En este contexto, las Diputaciones Forales han regulado la obligación por parte de las instituciones financieras de competencia foral, de suministrar información sobre cuentas financieras abiertas en ellas por determinadas personas estadounidenses según el procedimiento y las condiciones previstas en el referido acuerdo internacional (modelo 290).

Para el acceso de las Haciendas Forales a la información de interés foral remitida por las autoridades estadounidenses, se ha habilitado un espacio colaborativo neutro con la AEAT (ratificado mediante acuerdo de la Comisión Mixta del Concerto Económico de 19 de julio de 2017) y se ha acordado un protocolo de actuación para el

Ondorioz, FATCA hitzarmenari esker, foru-ogasunek aukera dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten pertsonen edo erakundeek Estatu Batuetako finantza-erakundeetan dituzten finantza-kontuei buruzko informazioa izateko.

2024an, aureko urteetan bezala, informazioa trukatzeko sistemaren funtzionamendua hobetzeko, egiazkotasuna ziurtatzeko eta jasotako informazioa zuzentzeko lana eutsi egin da, zerga-ihesa gertatzeko arrisku-egoerak hautemateko, sistemaren funtzionamenduaren gorabeherak agerian jarri eta konpontzeko, eta Zerga Agentziarekin arlo horren inguruan izaten den komunikazioa arintzeko.

Une honetan, foru-ogasunek 2014tik 2022ra bitarteko ekitaldiei dagokien informazioa dute (zenbait ekitaldiri buruzko datuak oraindik partzialak dira). Zehazki, 2024ko ekitaldia ixtean, eskuratu ahal izan diren azken ekitaldietako datuek 1.656 zergaduni eragiten diete.

ii) 2011/16 (EB) Zuzentaraua, 2011ko otsailaren 15ekoa, nazioarteko lankidetzaren administratiboari buruzkoa (DAC1).

2011/16 (EB) Zuzentzarauak informazio-truke automatikoa sustatzen du, bitarteko edo baliabide eraginkorrenzat hartu baita mugaz gaindiko egoeretan zergen ebaluazio zuzena hobetzeko eta iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko. 2014ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei dagokienez, estatu kideek elkarri komunikatu behar diote informazioa, automatikoki, beste estatu kide batean egoitza duten pertsona fisikoek eta erakundeek jasotako errenta-kategoria jakin batzuei buruz. Ondorioz, foru-ogasunei ere eragiten diete; izan ere, DAC1-en babespean eta ZAEAREN bitartez, informazioa bidaltzen diete gainerako estatu kideei, eta beste estatu kide

control de accesos a la información que garantice la seguridad.

En consecuencia, el acuerdo FATCA permite a las Haciendas Forales disponer de información sobre las cuentas financieras que personas o entidades domiciliadas en el País Vasco mantienen en entidades financieras estadounidenses.

Durante el año 2024, se ha mantenido el enfoque de años anteriores orientado a afinar el funcionamiento del sistema de intercambio de información, verificar la veracidad y corrección de la información recibida, para poder detectar al mismo tiempo situaciones de riesgo de evasión fiscal, poner de manifiesto y resolver las incidencias en el funcionamiento del sistema y agilizar la comunicación con la Agencia Tributaria en esta materia.

En este momento las Haciendas Forales disponen de la información correspondiente a los ejercicios desde 2014 hasta 2022 (de algunos ejercicios, datos aún parciales). En concreto, al cierre de 2024, los datos a los que se ha tenido acceso correspondientes a los últimos ejercicios afectan a 1.656 personas contribuyentes.

ii) Directiva 2011/16/UE de 15 de febrero de 2011, relativa a la cooperación administrativa en el ámbito internacional (DAC1).

La Directiva 2011/16/UE potencia el intercambio automático de información al considerarse el medio más eficaz de mejorar la evaluación correcta de los impuestos en situaciones transfronterizas y la lucha contra el fraude fiscal. Respecto a los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2014, exige que los Estados miembros se comuniquen automáticamente la información disponible sobre determinadas categorías de renta obtenidas por personas físicas y entidades con domicilio en otro Estado miembro. En consecuencia afecta también a las Haciendas Forales que al amparo de la DAC1, a través de la AEAT, transfieren información al resto de Estados

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

batzuetako foru-zergadunei buruzko informazioa jasotzen dute, errenta-kategoria hauen gainean: i) mendeko lanaren etekinak, ii) administratzaileen eta aholkularien ordainketak, iii) beste zuzentarau batzuek estaltzen ez dituzten bizi-aseguruen produktuak, iv) pentsioak, eta v) ondasun higiezin jabetza eta higiezin etekinak.

2024an, foru-ogasunek zabaldu dute errenta-tipologia horri buruzko informazioa jasotzeko, ZAEAREN bitartez, xehetasun hauen arabera:

Mendeko lanaren errendimenduen ondoriozko errentei dagokienez, aurreko urteetako informazio partziala osatu da. Zehazki, jasotako informazio berriak 1.398 zergaduni eragiten die.

Pentsioei dagokienez, foru-ogasunek 2014. urtetik aurrerako informazioa daukate. Hain zuzen ere, aurreko urteei dagokion informazioan, Euskadiko 7.633 zergadunek kobratu dituzten pentsioei buruzko datuak jaso dira 2024an.

Azkenik, ondasun higiezin jabetzari eta higiezin errendimenduei dagokienez, aurreko ekitaldiei informazioa jaso da 2024. urtean zehar, informazioak 863 zergaduni eragiten die.

iii) CRS - Aitorpen Estandar Erkidea (Common Reporting Standard), ELGERen eta 2014/107 (EB) Zuzentarauaren (DAC2) babespean garatua (289 eredua).

ELGEk, Azken urteotan, Finantza Kontuei buruzko Zerga Arloko Informazioa Automatikoki Trukatze Estandarra izeneko sistema garatu du, Common Reporting Standard edo CRS estandarrean (aitorpen estandar erkidea) zehazten diren aitorpeneko eta behar adinako arretako prozeduretan oinarritzen dena.

Comisión de lucha contra el fraude fiscal

miembros y reciben información de personas contribuyentes forales de otros Estados miembros, relativa a las siguientes categorías de renta: i) rendimientos del trabajo dependiente, ii) remuneraciones de administradores y consejeros, iii) productos de seguro de vida no cubiertos por otras directivas, iv) pensiones, y v) propiedad de bienes inmuebles y rendimientos inmobiliarios.

Durante 2024 las Haciendas Forales han ampliado la información disponible sobre esta tipología de rentas facilitada por la AEAT según el siguiente detalle:

En relación con las rentas derivadas de rendimientos del trabajo dependiente, se ha completado la información parcial de años anteriores, recibiendo nueva información correspondiente a 1.398 personas contribuyentes.

En relación con las pensiones, las Haciendas Forales ya disponen de información respecto del año 2014 en adelante. En concreto, en 2024 se han recibido datos sobre pensiones cobradas en los años anteriores por 7.633 personas contribuyentes del País Vasco.

Por último, con respecto a la propiedad de bienes inmuebles y rendimientos inmobiliarios, durante 2024 se ha recibido información correspondiente a ejercicios anteriores que afecta a 863 personas contribuyentes.

iii) CRS - Estándar Común de Declaración (Common Reporting Standard) desarrollado en el seno de la OCDE y Directiva 2014/107/UE - DAC2 (modelo 289).

La OCDE ha desarrollado durante los últimos años un sistema conocido como Estándar para el Intercambio Automático de Información sobre Cuentas Financieras en Materia Tributaria, basado en los procedimientos de declaración y diligencia debida que se definen en el Common Reporting Standard o CRS (Estándar Común de Declaración).

Horrela, 2014ko urriaren 29an, Espainiako Erresumak Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztuna sinatu zuen, eta bertan adierazi 2017an informazio-truke automatikoarekin hasteko asmoa zuela, 2016ko finantza-kontuen informazioari zegokionez.

Agintari Eskudunen Akordio Aldeaniztunak ezartzen du, batetik, Espainiako finantza-erakundeen betebeharra dela herrialde edo jurisdikzio sinatzaileetako egoiliarren titulartasuneko eta kontrolpeko kontuak identifikatzea; bestetik, Espainiako zerga-administrazioari finantza-kontu horiei buruzko informazioa eman behar zaiola urtero, bi kasuetan Common Reporting Standard edo CRS estandarrean araututako prozedurei jarraikiz.

Aurreko puntuan adierazi den moduan, Europar Batasunean, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzko Zuzentarauak (2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2011ko otsailaren 15ekoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetu zuena) jasoa zuen jada estatu kideen artean informazio automatikoki trukatzeko beharra, baina errenta- eta ondare-kategoria ez finantzarioei zegokienez eta informazioa eskuragarri egonez gero soilik. Estatu kideen arteko informazio-truke automatikoaren arloa finantza-kontuetara zabaltzeko xedez, ELGEk prestatutako informazio-komunikaziorako estandar erkidearekin modu bateragarrian eta koordinatuan, 2014/107 (EB) Zuzentaraua onartu zen, Kontseiluarena, 2014ko abenduaren 9koa (2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, fiskaltasunaren esparruan informazioa automatikoki trukatzeko derrigortasunari dagokionez). Arau horren eraginez, esparrua zabaltzeko estatu kideek elkarrekin informazioa trukatzeko betebeharrekin, finantza-kontuei buruzko zerga-arloko informazioa automatikoki trukatzeko estandarrean jasotakoekin lerrokatzeraino. Horrela, estatu kideen eta hirugarren estatuen

De esta manera, el 29 de octubre de 2014, el Reino de España firmó en Berlín el Acuerdo Multilateral de Autoridades Competentes, por el cual manifestó su intención de comenzar el intercambio automático de información en 2017, en relación con la información de cuentas financieras relativa a 2016.

El Acuerdo Multilateral de Autoridades Competentes establece, por un lado, la obligación de las instituciones financieras españolas de identificar las cuentas cuya titularidad o control corresponde a residentes en países o jurisdicciones firmantes y, por otro lado, de suministrar anualmente a la Administración tributaria española la información sobre dichas cuentas financieras, en ambos casos conforme a los procedimientos regulados en el Common Reporting Standard o CRS.

Como se ha señalado en el punto anterior, en el ámbito de la Unión Europea, la Directiva 2011/16/UE del Consejo, de 15 de febrero de 2011, relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad y por la que se deroga la Directiva 77/799/CEE, ya contemplaba la obligatoriedad del intercambio automático de información entre los Estados miembros, si bien sobre categorías de renta y de patrimonio de carácter no financiero y sobre la base de que la información estuviera disponible. Con objeto de ampliar a las cuentas financieras el ámbito del intercambio automático de información entre los Estados miembros, de forma compatible y coordinada con el Estándar común de comunicación de información elaborado por la OCDE, fue aprobada la Directiva 2014/107/UE del Consejo, de 9 de diciembre de 2014, que modifica la Directiva 2011/16/UE en lo que se refiere a la obligatoriedad del intercambio automático de información en el ámbito de la fiscalidad. Dicha norma amplía el ámbito de la información que los Estados miembros están obligados a intercambiar entre sí, alineando dichas obligaciones con las contenidas en el Estándar para

arteko lankidetzaren administratiboaren irismena berdintzen da eta finantza-erakundeak betetze-kostuak murrizten dira, finantza-kontuak identifikatzeko eta aitortzeko araudi berbera erabiliko baitute. Era berean, informazio-truke hori beste herrialde edo jurisdikzio batzuekin ere gauzatu daiteke, Espainiarekin informazio-trukerako akordioa badute, eta akordio horren bitartez dena delako herrialdeak edo jurisdikzioak informazioa eman behar badu, informazio-trukean elkarrekikotasuna dagoela.

Informazio-truke automatikoa DAC1-ean jasotako bost kategoriatatik harago zabaltzeko eskertzen da, eta DAC2 eta CRS-ren babespean, foru-ogasunek foru-zergadunen datuak izan ditzakete, beste herrialdeetako agintari eskudunen eskutik, informazio hau jasota: interesak, dibidenduak, aktibo finantzarioak saltzearen ondoriozko gainbalioak, finantza-kontu batean mantendutako aktiboekin lotuta sortutako beste edozein errenta, finantza-erakundea obligatiodun edo zordun den beste edozein kopuru, eta kontu-saldoak.

Alde batetik, 289 ereduaren bidez (elkarren laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko urteko aitorpena), dagozkien foru-aginduek onartzen baitituzte, foru-eskumeneko finantza-erakundeek beste herrialde batzuetako pertsonen eta erakundearen inguruko informazioa aurkeztean diete foru-ogasunei urtero, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean, aurreko urteari buruzko finantza-informazioari dagokionez. Informazio hori beste herrialde batzuetako agintari eskudunei igortzen zaie ZAEAREN bidez. Eta, alderantziz, foru-ogasunek eskueran izango dute, ZAEAREN arabera garatutako irispide-tresnen bitartez, aipatutako agintari horiek emandako informazioa, aurreko

el Intercambio Automático de Información sobre Cuentas Financieras en Materia Tributaria (CRS). De esta manera, se iguala el alcance de la cooperación administrativa entre Estados miembros y terceros Estados y se minimizan los costes de cumplimiento por parte de las instituciones financieras, que utilizarán una normativa común de identificación y declaración de cuentas financieras. Asimismo, este intercambio de información también puede realizarse con cualquier otro país o jurisdicción con el cual España haya celebrado un acuerdo en virtud del cual el país o jurisdicción deba facilitar la información con el que exista reciprocidad en el intercambio de información.

Para las Haciendas Forales, la extensión del ámbito de aplicación del intercambio automático de información más allá de las cinco categorías previstas en la DAC1, les permite disponer, al amparo de la DAC2 y CRS, de datos de personas contribuyentes forales facilitados por las autoridades competentes de otros países sobre intereses, dividendos, plusvalías derivadas de la venta de activos financieros, cualquier otra renta generada en relación con los activos mantenidos en una cuenta financiera, cualquier importe respecto del cual la entidad financiera sea el obligado o deudor, y los saldos en cuentas.

Por una parte, a través del modelo 289 (Declaración informativa anual de cuentas financieras en el ámbito de la asistencia mutua), aprobado mediante las correspondientes órdenes forales, las instituciones financieras de competencia foral presentan a las Haciendas Forales con periodicidad anual, entre el 1 de enero y el 31 de mayo de cada año en relación con la información financiera relativa al año inmediato anterior, la información correspondiente a personas y entidades de otros países. Esa información se transfiere a las autoridades competentes de esos países a través de la AEAT. En sentido recíproco, las Haciendas Forales disponen, a través de las herramientas de acceso

paragrafoan zehaztutako errenta-kategoriei buruzkoa, foru-zergadunei dagokiena. Nazioarteko akordio horiek aplikatzearen ondoriozko lehenengo informazio-truke automatikoa, oro har, 2016. urteari dagozkion datuekin egin zen, 2017ko irailean.

2024an, foru-ogasunek 85 herrialdetako informazioa jaso dute (DAC2 eta CRS). 2016tik 2023ra bitarteko hainbat urteri buruzko informazioa da, eta Europar Batasuneko estatu guztietatik eta beste herrialde edo jurisdikzio batzuetatik iritsi da: Andorra, Bahamak, Kaiman uharteak, Gibraltar, Man uharte, Birjina uharte britainiarrak, Jersey, Liechtenstein, Monako, Panama eta Suitza. 2024an, informazio berriak 106.710 zergaduni eragin zien.

I.3. Nazioarteko zerga-sistemaren esparruan diharduten zergapekoak aztertzea, eta kasu horietan arrisku handia badago iruzur fiskala gertatzeko, jurisdikzio ez-kooperatiboekin lotura dutelako.

Nazioartean oso elementu garrantzitsua da lotutako eragiketen tratamendu fiskala, eta hala Europar Batasuna nola ELGE ahalegin espezifikoak egiten ari dira hori aztertzeke. Hain zuzen ere eremu honetan, nazioarteko iruzur fiskala hauteman eta galarazteko funtsezko tresna dira ELGEren lanak, BEPS proiektuan gauzatuak.

Zehazki, truke-eremuen araberako bereizketa eginez, hau da egoera:

i) Tax rulings – 5. ekintza BEPS eta Kontseiluaren 2015eko abenduaren 8ko 2015/2376 (EB) Zuzentaraua (DAC3).

desarrolladas de acuerdo con la AEAT, de la información facilitada por dichas autoridades sobre las categorías de rentas detalladas en el párrafo anterior, correspondiente a personas contribuyentes forales. El primer intercambio automático de información derivado de la aplicación de estos acuerdos internacionales se realizó, con carácter general, con los datos correspondientes al año 2016, en el mes de septiembre de 2017.

Durante 2024, las Haciendas Forales han recibido información de 85 países correspondiente a DAC2 y CRS referida a varios años entre el periodo de 2016 a 2023, que proviene de todos los estados miembros de la Unión Europea y de otros países o jurisdicciones como Andorra, Bahamas, Islas Caimán, Gibraltar, Isla de Man, Islas Vírgenes Británicas, Jersey, Liechtenstein, Mónaco, Panamá y Suiza. Durante 2024 se ha tenido acceso a nueva información correspondiente a 106.710 personas contribuyentes.

I.3º Análisis de las personas y entidades obligadas tributarias que operan en el ámbito de la fiscalidad internacional y presentan un mayor riesgo de fraude fiscal, por su vínculo con jurisdicciones no cooperativas.

El tratamiento fiscal de las operaciones vinculadas constituye un elemento trascendental internacionalmente, a cuyo análisis están dedicando específicamente esfuerzos tanto la Unión Europea como la OCDE. Precisamente en este ámbito, los trabajos elaborados por la OCDE, materializados en el proyecto BEPS, constituyen una herramienta fundamental de análisis para la detección y represión del fraude fiscal internacional.

En concreto, diferenciando por áreas de intercambio, la situación es la siguiente:

i) Tax rulings – Acción 5 BEPS y Directiva (UE) 2015/2376, del Consejo, de 8 de diciembre de 2015 (DAC3).

2015/2376 (EB) Zuzentarauak [Kontseiluarena, 2015eko abenduaren 8koa (DAC3) 2011/16 (EB) Zuzentaraia aldatu zuen, informazio-truke automatikoaren betebeharra prozedura hauetara ere hedatzeko: mugaz haraindi ondorioak izan ditzaketen aurretiazko administrazio-lotespeneko prozeduretara (tax ruling izenekoak). Bestalde, ELGEren barruan, eta BEPS proiektuaren 5. ekintzarekin lotuta, ondorio horiek berak dituzten tax ruling-ak ere trukatzearabaki zen.

Helburua da bermatzea estatu kideen edo herrialdeen agintari eskudunek beharrezkoa den informazioa izango dutela beren zerga-oinarriak babesteko eta dagozkien zergak ordaintzea saihestu nahi duten enpresak identifikatzeko. Orokorrean, informazio-trukearen xede izango dira mugaz gaindiko ondorioak dituzten aurretiko akordioak eta transferentzia-prezioei buruzko aurretiko akordioak.

184	Errenta-eratxikipenaren aurabideko erakundeak Entidades en régimen de atribución de rentas	15.811
187	Atxikipenak. Akzioak eta IKE Retenciones acciones e IIC	1.051
188	Atxikipenak. Kapitalizazio-eragiketen eta seguru kontratuak Retenciones. Operaciones de capitalización y contratos de seguros	394
189	Informatiboa. Baloreak, Aseguruaketa Errentak Informativa. Valores, Seguros y Rentas	708
190	Atxikipenak (Araubide orokorra) - Urteko laburpen-aitorpena Retenciones (Régimen general) Resumen anual	146.360
193	Higikorren kapitalaren atxikipenak. - Urteko laburpen-aitorpena Retenciones de capital mobiliario. Resumen anual	13.761

194	Aktibo finantzieroa. Informatiboa Informativa activos financieros	330
200	Sozietateen gaineko Zerga Impuesto sobre sociedades	79.663
202	Zatikako ordainketa. Sozietateen gaineko Zerga Pagos fraccionados. Impuesto sobre sociedades	4.695
210	EEEZ- Autoliquidazioa IRNR - Autoliquidación	8.148
211	EEEZ- Ondasun higiezin atxikienak. Autoliquidazioa IRNR – Retenciones de transmisión inmuebles. Autoliquidación	414
216	EEEZ- Atxikienak. Autoliquidazioa IRNR - Retenciones. Autoliquidación	15.865
220	Sozietate taldeen ordainketa araubidea Regimen tributación de grupos de sociedades	1.784
221	Zerga geroratuen aktiboak zerga administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare prestazioa Prestación patrimonial por conversión de activos por impuesto diferido en crédito exigible frente a la Administración Tributaria	2
222	Ordainketa zatikatua. Zerga kontsolidaziozko erregimena Pago fraccionado. Sociedades consolidadas	2.651
228	Zerga-taldearen osaketan aldaketa eta alta-jakinazpena Comunicación de alta y variación en la composición de grupo fiscal	71
230	Loteriak eta sariak. Autoliquidazioa Premios loterías autoliquidación	13
232	Aitorpen informatiboa. Eragiketa lotuak eta paradisu fiskalekin zerikusia duten eragiketak Declaración informativa. Operaciones vinculas y relacionadas con paraísos fiscales	16.628
270	EEEZ- Atxikienak. Autoliquidazioa IRNR - Retenciones. Autoliquidación	8
296	EEEZ- Atxikienak. Autoliquidazioa IRNR - Retenciones. Autoliquidación	3.584
300	BEZ. Hiruhileroko aitorpen-likidazioa IVA - Autoliquidación trimestral	160.780
303	BEZ. Autoliquidazioa IVA - Autoliquidación	349.701
308	BEZ. Itzulketa eskaera (Noiz behinkakoa) IVA - Solicitud de devolución. (no periódico)	280
309	BEZ. Ez-aldizkako aitorpen-likidazioa IVA - Autoliquidación. (no periódico)	6.784
310	BEZ. Hiruhileroko aitorpen-likidazioa (Araubide erraztua) IVA - Autoliquidación trimestral (simplificado)	27.806
320	BEZ. Hileko aitorpen-likidazioa (Enpresa handiak) IVA - Autoliquidación mensual (grandes empresas)	12.862
322	BEZ. Hileko aitorpen-likidazioa (Erakunde taldea. Banakako eredu) IVA - Autoliquidación mensual (grupos de entidades - modelo individual)	18.576
330	BEZ. Autoliquidazioa (Hileko itzulketaren erregistroa) IVA - Autoliquidación mensual (registro de devoluciones mensuales)	10.742
345	BGAB Informazio-aitorpena EPSV informativa	11.903
347	BEZ. hirugarren pertsonen eragiketei buruzko urteko informazio-aitorpena IVA - Declaración anual de operaciones con terceras personas	275.066
349	BEZ. Europako Batasuneko subjektu pasiboekin egindako eragiketen laburpena IVA - Declaraciones de operaciones con sujetos pasivos de la UE	100.415
353	BEZ. Autoliquidazioa (Erakunde taldea. Eredu erantsia)	6.669

	IVA - Autoliquidación (grupos de entidades - modelo agregado)	
368	Telekomunikazio zerbitzuei aplikagarri zaien araubide berezia BEZan Régimen especial aplicable a los servicios de telecomunicaciones en el IVA	85
370	BEZ. Autolikidazioa (Araubide orokorra + erraztua) IVA - Autoliquidación (general + simplificado)	283
390	BEZ. Urteko Laburpen-Aitorpena (Araubide orokorra) IVA -Resumen Anual (general)	175.907
391	BEZ. Urteko Laburpen-Aitorpena (Araubide erraztua) IVA -Resumen Anual (simplificado)	9.969
392	BEZ. Urteko Laburpen-Aitorpena (Araubide orokorra + erraztua) IVA -Resumen Anual (general + simplificado)	120
393	BEZ. Urteko Laburpen-Aitorpena (Erakunde taldea) IVA -Resumen Anual (grupos de entidades)	478
410	Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergaren konturako ordainketa. Autolikidazioa Pago a cuenta del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito. Autoliquidación	55
411	Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga. Autolikidazioa Impuesto sobre los Depósitos en la Entidades de Crédito. Autoliquidación	59
430	Aseguru primen gaineko zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre Primas de Seguros	7.700
480	Aseguru primen gaineko zerga. Urteko aitorpena Declaración resumen anual del Impuesto sobre Primas de Seguros	535
560	Elektrizitatearen gaineko zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre la Electricidad	4.921
561	Garagardoaren gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre la Cerveza	155
562	Tarteko ekoizkinen gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre la Productos intermedios	92
563	Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre el Alcohol y bebidas derivadas	155
565	Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte	0
566	Tabako-moten gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre las Labores del Tabaco	123
576	Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte	22.689
581	Hidrokarburoen gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre Hibrocarburos	4.019
583	Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren gaineko Zerga. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación del Impuesto sobre el valor de la energía eléctrica	1.472
587	Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko Zerga Impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero	196
600	Ondare eskueldaketen eta egintza juridiko agiridunen gaineko Zerga Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados	128.572
620	Ibilgailu erabilien salerosketa Compra-venta vehículos usados	21.161
621	Ondare eskueldaketen eta egintza juridiko agiridunen gaineko Zerga Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados	24.334
714	Fortuna Handien eta Aberastasunaren gaineko Zerga. Ondarearen gaineko Zerga Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas. Impuesto sobre el Patrimonio	20.759
720	Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideak. Informazio-aitorpena Bienes y derechos en el extranjero - Informativo	4.029
763	Joko jardueren gaineko zerga, urtebeteko eta urte anitzeko jardueren kasuan Impuesto sobre actividades de juego en los supuestos de actividades anuales y plurianuales	233

840	Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga Impuesto sobre actividades económicas	24.532
952	BEZ Informazio-aitorpena. Zerga-oinarriak aldaketa IVA informativo. Modificaciones Base imponible	356
20R	Berregituratze-eragiketaren jakinarazpena Comunicación de operaciones de reestructuración	347
40E	Bingo elektronikoa. Aitorpen-likidazioa Declaración-liquidación. Bingo electrónico	70
95B	BEZ Informazio-aitorpena. Zerga-oinarriak aldaketa IVA informativo. Modificaciones Base imponible	31
	Gainontzeko ereduak Resto de modelos	28.576
GUZTIRA / TOTAL		3.843.159

II.3.3. Halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko aitorpenak aurkezteko modu nagusiei buruzko datuak nabarmenduko ditugu:

II.3º.3. Destacamos asimismo los datos correspondientes a las principales formas de presentación de las declaraciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Kontzeptua Concepto	Aurkezpenen kopurua Número presentaciones
Autolikidaziorako proposamenak – Etxean Propuestas de autoliquidación - Etxean	346.308
Mekanizatua - Erakunde laguntzaileak Mecanizada - entidades colaboradoras	95.310
Internet Internet	835.793
GUZTIRA TOTAL	1.277.411

Honako hauxe aurkeztu da 2024. urteko atxikipeneko ordainketen urteko laburpenetan agertutako informazio aitorpenei dagokienez:

- 190. modeloaren (Lanaren, ekonomia jardueren eta sarien etekinen gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren eta zenbait errenta egozpenen urteko laburpena) eta 180. modeloaren inguruko (Hiri lurreko ondasun higiezinaren alokairuagatik etekinen gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren urteko laburpena) 4.841 errekerimendu.

- 347. modeloari dagokionez (Hirugarrenen eragiketei buruzko urteko aitorpena), 2.364 errekerimendu egin zaizkie aitorpena aurkeztu ez dutenei nahiz aurkeztu dutenei, aitortutakoaren eta

En relación con las declaraciones informativas que contienen los resúmenes anuales de pagos sujetos a retención durante el año 2024 se han emitido:

- 4.841 requerimientos relativos al modelo 190 - Resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta - y al modelo 180 - Resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos -.

- Respecto al modelo 347 - Declaración anual de operaciones con terceras personas - se han practicado 2.364 requerimientos tanto a las personas no presentadoras como a presentadoras

beste zergadun batzuek haiei egotzitakoaren artean alde handiak daudenean.

- Beste informazio modelo batzuen aurkezpenari dagokionez, nabarmendu beharra dago 349. modelo (Europar Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitortpena) 819 errekerimendu egin direla, 840-848. modelo (Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko aitortpena) aurkezteko 1.289 errekerimendu, eta beste modeloen 288 errekerimendu.

Guztira, 989.574 euroko isunak jarri dira informaziorako betebeharrak ez betetzeagatik.

II.4. Zordunen zerrenda argitaratzea.

2016an, lurralde historiko bakoitzeko Zergen Foru Arau Orokorra aldatzeko Foru Arauak argitaratu ziren kasuan kasuko aldizkari ofizialetan; horien arabera, Foru Ogasunek aldizka argitaratuko zituzten epe exekutiboko zordunen zerrendak, 1.000.000 eurotik gorako ordaindu gabeko zorrak eta zigorrak direla eta.

Geroztik, jarraitutako Plan Bateratuek neurri hori ezarri zuten zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko jarduketan artean, zerga-betebeharrak nahita betetzea xede duten prebentziorako eta prestakuntzarako tresnen baitan. Neurri hori, beraz, denon zerga-kontzientzia sendotzeko baliabidea da, gizarte-gaitzespen handia duten jokabideak jakitera ematen baititu. Nolanahi ere, zerga-datuen konfidentzialtasun-betebeharrak orokorra errespetatu beharko du publikitate horrek; hartara, bi printzipio horien arteko oreka bilatu nahian, erregela tasatuak ezarri dira argitaratu behar diren zerrendak osatzeko. Laburbilduz, zerga-zorrak eta -zigorrak dituzten zordunen berri emango dute foru-ogasunek, baldin eta honako baldintza hauek ematen badira: a) ordaindu beharreko zerga-zor eta -zigorren

de la declaración con importantes diferencias entre lo declarado y lo imputado a los mismos por otras personas obligadas tributarias.

- En relación con la presentación de otros modelos informativos, hay que señalar que se han practicado 819 requerimientos del modelo 349 - Declaración recapitulativa de operaciones intracomunitarias -, 1.289 requerimientos del modelo 840-848 - Declaración del Impuesto sobre Actividades Económicas - y 288 requerimientos de otros modelos.

Se ha procedido a la imposición de multas por importe de 989.574 euros por el incumplimiento de las obligaciones de información establecidas en los citados modelos.

II.4º. Publicación del listado de personas deudoras.

Durante el año 2016, se publicaron en los Boletines Oficiales correspondientes, las Normas Forales de modificación de la Norma Foral General Tributaria de cada Territorio Histórico, en virtud de las cuales se acordó la publicación periódica por las Haciendas Forales de listados de sus personas deudoras en periodo ejecutivo por deudas y sanciones impagadas de importe total superior a 1.000.000 de euros.

Desde entonces, los sucesivos Planes Conjuntos han recogido esta medida como una de las actuaciones de lucha contra el fraude fiscal enmarcada dentro de los instrumentos preventivos y educativos dirigidos al cumplimiento voluntario de los deberes tributarios. Por tanto, esta medida se configura como un medio del fortalecimiento de la conciencia fiscal colectiva ya que da publicidad a los comportamientos que cuentan con una gran reprobación social. No obstante, esta publicidad debe ser respetuosa con el deber general de confidencialidad de los datos tributarios, por lo que se ha buscado un equilibrio entre estos dos principios mediante la introducción de reglas tasadas para formar los listados que habrán de hacerse públicos. En resumen, las Haciendas

zenbatekoa 1.000.000 eurotik gorakoa izatea (muga hori 600.000 eurora murriztu da 2022an onartutako arau-xedapenen bidez, baina 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango zituela ondorioak), eta b) aipatu zerga-zor eta -zigorrak ordaintzen ez badira nahita ordaintzeko epea igarotakoan. 2024an argitaratu da lehenengoz zordunen zerrenda irizpide berri horiekin, eta haien irismena handitu da.

2024an, 471 zordunen datuak argitaratu dira, osotara 1.294,95 milioi euroko zorra zutenak.

II.5. Beste jarduketa batzuk.

II.5.a.1.- Europar Batasunaren barruko Operadoreen Erregistrora sartzeko eskaerak kontrolatuko dira, eta bertan dauden operadoreen jarraipen-lanak egingo dira, hala badagokio, dagoeneko erregistratuta dauden eragileei kautelazko baja eman edo sartzeko eskaerak ukatze aldera.

Hauek dira 2024. urtean lortutako datuak:

- Erregistroan sartzeko eskabideak: 5.527.
- Iragazitako eta kudeaketako organoek eta, batez ere, haien iruzur arriskuaren sektoreak ikuskatutako eskabideak: 3.914.
- Ikuskaritzako organoei txostenerako bidalitako eskabideak: 382. Izan ere, guzti-guztiak ikuskatu dira, zergadunei *in situ* egindako kontrolen bitartez.
- Erregistroan sartzeko eskabide ukatuak: 217.
- Jarraipen markadun eskabideak, ostean sei hilean behin edo urtean behin ikuskatzeko: 346.

Forales darán publicidad exclusivamente de las personas deudoras por deudas y sanciones tributarias cuando concurren las siguientes circunstancias: a) que el importe total de las deudas y sanciones tributarias pendientes de ingreso supere el importe de 1.000.000 de euros, (este umbral ha sido reducido a los 600.000 euros mediante las correspondientes disposiciones normativas aprobadas en 2022, si bien, con efectos materiales en 2023) y b) que dichas deudas o sanciones tributarias no hubiesen sido pagadas transcurrido el plazo de ingreso en periodo voluntario. El año 2024 ha sido el primero en el que la lista de personas deudoras se ha publicado con estos nuevos criterios, que amplían su alcance.

En 2024, los datos publicados corresponden a 471 personas deudoras por un importe global de deuda pendiente de 1.294,95 millones de euros.

II.5°. Otras actuaciones.

II.5°.a.1.- Control de las solicitudes de acceso al Registro de Operadores Intracomunitarios, y realización de labores de seguimiento de los operadores incluidos en el mismo, a los efectos de la posible denegación de solicitudes de acceso o baja cautelar de los operadores ya registrados.

Los datos obtenidos durante el año 2024 son los siguientes:

- Solicitudes de acceso al registro: 5.527.
- Solicitudes filtradas y revisadas, con especial atención por el sector de riesgo de fraude al que pertenecen, por los órganos de gestión: 3.914.
- Solicitudes remitidas a los órganos de inspección para informe: 382, las cuales se han revisado en su totalidad mediante controles *in situ* a las personas obligadas tributarias.
- Solicitudes de acceso al registro denegadas: 217.
- Solicitudes con marca de seguimiento, para su revisión posterior semestral o anual: 346.

- Erregistratuta zeuden 1.932 operadorei ofiziozko baja eman zaie, indarreko arautegian zehaztutako legezko kausaren baten eraginpean egoteagatik.

II.5.a.2.- Hileko Itzulketen Erregistroan sartzeko eskabideak kontrolatzea eta bertan azaldutako operadoreen jarraipena egitea, sarrera eskabideak ukatzeko edo erregistratutako operadoreei kautelazko baja emateko.

2024. urtean, Hileko Itzulketen Erregistroan alta emateko 355 eskabide aurkeztu dira, eta, guzti-guztiak sakontasun handiagoz edo txikiagoz egiztatu dira, eskabide bakoitzean adierazitako arrisku faktoreen azterketa kontuan hartuta. Ildo horretan, aurrez aurreko egiaztapenak egin zaizkie zergapeko pertsonen, jakinarazitako datuen egiazkokoak diren frogatzeko. Egiaztapenerako jarduketara horien arabera, erregistroan sartzeko eskabideak ukatu dira, eta, osteko kontrola egindakoan, zenbat zergadun sartu dira erroldan. Hain zuzen ere, honako hauexek dira urtean garatutako jarduketan adierazgarri diren zenbakiak:

- Erregistroan sartzeko eskabideak: 355. Guzti-guztietan, balioztatzeak iragazkiak ezarri dira.
- Iragazkiak gainditu ez dituzten eta kudeaketako organoek eta, batez ere, haien iruzur arriskuaren sektoreak ikuskatu dituzten eskabideak: 293.
- Ikuskaritzako organoei txostenerako bidalitako eskabideak: 58. Izan ere, guzti-guztiak ikuskatu dira, zergadunei *in situ* egindako kontrolen bitartez.
- Erregistroan sartzeko eskabide ukatuak: 28.
- Jarraipen markadun eskabideak, ostean sei hilean behin edo urtean behin ikuskatzeko: 109.

- Se ha procedido a dar de baja de oficio a 1.932 operadores ya registrados, por estar incursos en alguna de las causas legalmente establecidas por la normativa vigente.

II.5º.a.2.- Control de las solicitudes de acceso al Registro de Devoluciones Mensuales, y realización de labores de seguimiento de los operadores incluidos en el mismo, a los efectos de la posible denegación de solicitudes de acceso o baja cautelar de los operadores ya registrados.

Durante el año 2024, se han presentado 355 solicitudes de alta en el Registro de Devolución Mensual, habiéndose comprobado todas ellas en mayor o menor profundidad en función del análisis de los diversos factores de riesgo concurrentes en cada una de las solicitudes. En este sentido, se han realizado comprobaciones presenciales, a personas obligadas tributarias a efectos de contrastar la veracidad de los datos comunicados. Sobre la base de estas actuaciones de comprobación, se han denegado solicitudes de inclusión en el registro, mientras que la incorporación de algunas personas obligadas tributarias en el censo se ha producido condicionada a un control posterior. En concreto, las actuaciones realizadas en el año se resumen en las siguientes cifras:

- Solicitudes de acceso al registro: 355. Todas ellas han sido sometidas a filtros de validación.
- Solicitudes que no han superado los filtros y han sido revisadas por los órganos de gestión con especial atención por el sector de riesgo de fraude al que pertenecen: 293.
- Solicitudes remitidas a los órganos de inspección para informe: 58, las cuales se han revisado en su totalidad mediante controles *in situ* a las personas obligadas tributarias.
- Solicitudes de acceso al registro denegadas: 28.
- Solicitudes con marca de seguimiento, para su revisión posterior semestral o anualmente: 109.

- Erregistratuta zeuden operadoreei baja emateko eskabideak: 27.

- Era berean, zergadunen ofiziozko 22 baja gauzatu dira, erregistroan inskribatuta egoteko eskatutako betekizunak ez betetzeagatik.

II.5.b.- Enpresari, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldako alta, aldaketa eta baja adierazpenetan jakinarazitako datuak eta, batez ere, zergadunek aitortutako helbide fiskalei buruzko datuak benetakoak direla egiaztatzea, bizilekua atzerrira aldatu dela jakinarazteko kasuak barne.

Zerga-egoitzari eta aitortutako errolda-datuei dagokienez, 2024an 178 prozedurari ekin zaie zerga-egoitza ofizioz aldatzeko, eta 036 ereduaren aurkeztutako aitorten guztiak ikuskatu dira, arrisku-irizpideen automatizazioaren eta bildutako datuen egiazkotasuna ziurtatzeko ondorengo jarduketan bitartez.

II.5.c.- Lurralde historiko bakoitzeko indarreko arautegian zehaztutako suposamenduren baten eraginpean dauden erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzea.

Hona hemen 2024. urtean garatu diren jarduketak:

- 2024ko aldizkari ofizialean argitaratutakoaren arabera indargabetutako identifikazio fiskaleko zenbakiak: 1.364, haietatik, 2 izan dira 2023. urtean abian jarritako prozeduretakoak.

- Identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzeko proposamenak: 1.364.

- Aldizkari ofizialean argitaratu ez diren indargabetze erabakiak: 11.

- Orain arte indargabetutako identifikazio fiskaleko zenbakiak: 1.349.

- Solicitudes de bajas de operadores ya registrados: 27.

- Asimismo, se ha procedido a realizar 22 bajas de oficio de aquellas personas obligadas tributarias que han dejado de cumplir los requisitos exigidos para estar inscritas en el Registro.

II.5º.b.- Comprobación de la veracidad de los datos comunicados por las personas contribuyentes en las declaraciones de alta, modificación y baja en el Censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores y, en especial, de los domicilios fiscales declarados por las personas obligadas tributarias, incluyendo los supuestos de comunicación de traslado del domicilio al extranjero.

Por lo que respecta al domicilio fiscal y a los datos censales declarados, durante el año 2024, se han iniciado 178 procedimientos de modificación de oficio del domicilio fiscal y se han controlado la totalidad de las declaraciones presentadas del modelo 036 a través de la automatización de criterios de riesgo y de actuaciones posteriores de verificación de realidad de los datos consignados.

II.5º.c.- Revocación del número de identificación fiscal de las entidades que se encuentren en alguno de los supuestos establecidos en la normativa vigente de cada uno de los Territorios Históricos.

En el año 2024 se han realizado las siguientes actuaciones:

- Números de identificación fiscal cuya revocación se ha publicado en el Boletín Oficial correspondiente en el año 2024: 1.364, de los cuales 2 corresponden a procedimientos iniciados en el año 2023.

- Propuestas de revocación del número de identificación fiscal emitidas: 1.364.

- Acuerdos de revocación pendientes de publicación en el Boletín Oficial: 11.

- Números de identificación fiscal revocados hasta el momento: 1.349.

- Identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzeko proposamenei buruzko alegazioak aurkeztu dituzten zergadunak: 4.

- Identifikazio fiskaleko zenbakia berriro indarrean jartzeko prozedurak: 16.

2024an identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzeko hasitako prozedurak egiaztapen eta ikerketarako jarduketan zein prozeduren ondorioz sortu dira, batez ere, eta agerian utzi dute zergadunak ez daudela jardunean, aitortutako helbide fiskalak faltsuak direla edo zerga arloko onurak edo itzulketak bidegabe lortzeko eratu dituztela erakundeak. Era berean, prozedurak jarri dira abian, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu zutenetik 12 urtetik gorako epea igaro ostean sozietateak euren jarduera ekonomikoa garatzen hasi ez direnean eta zergadunei Erakundeen Aurkibidean baja eman zaienean, euren zerga betebeharrak ez betetzeagatik.

II.5.d.- Behin-behineko kautela-neurriak hartzea tributu-zorrak kobratuko direla bermatzeko, kudeaketa- eta ikuskapen-organoekin zein zerga-bilketako organoekin koordinaturik.

2024an, kautelazko neurriak aplikatzeko proposamenak zituzten 14 espediente aztertu ziren. Gainera, 27 kautelazko jarduketa egin ziren, 3.791.987 euro jo zutenak.

II.5.e.- Zerga-zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaeren kontrola, batez ere zorren zenbateko handiak dituzten pertsonena, bai eta zenbateko esanguratsuetan eratutako bermeena ere.

2024an, zerga-zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskabideak zituzten 90.271 espediente aztertu ziren. Aztertutako zorren zenbatekoa 1.136,18 milioi eurokoa izan zen.

II.5.f.- Funtzionarioentzako barne-trebakuntza sustatzea.

- Personas contribuyentes que han presentado alegaciones a propuestas de revocación del número de identificación fiscal: 4.

- Rehabilitaciones del número de identificación fiscal: 16.

Los procedimientos de revocación del número de identificación fiscal iniciados en el año 2024 traen causa, principalmente, de actuaciones y procedimientos de comprobación e investigación que han puesto de manifiesto la falta de actividad de las personas contribuyentes, la falsedad de los domicilios fiscales declarados o la constitución de entidades con el fin de obtener de forma indebida beneficios o devoluciones tributarias. Asimismo, los procedimientos se han iniciado en relación con sociedades que en un plazo de más de 12 meses desde la solicitud del número de identificación fiscal no han iniciado la actividad económica y con personas obligadas tributarias dadas de baja en el Índice de Entidades por el incumplimiento de sus obligaciones tributarias.

II.5°.d.- Adopción de medidas cautelares de carácter provisional para asegurar el cobro de las deudas tributarias, en coordinación con los órganos de gestión, inspección y de los propios órganos de recaudación.

Durante el año 2024 se han analizado 14 expedientes con propuestas para la aplicación de medidas cautelares. Además, se han llevado a cabo 27 actuaciones cautelares por un importe de 3.791.987 euros.

II.5°.e.- Control de las solicitudes de aplazamiento o de fraccionamiento en el pago de las deudas tributarias, en especial en aquellas personas con importes de deuda elevados, así como de las garantías constituidas por importes significativos.

Durante el año 2024 se han analizado 90.271 expedientes con solicitud de aplazamiento o fraccionamiento del pago de la deuda, cuyo importe fue de 1.136,18 millones de euros.

II.5°.f.- Fomento de la formación interna específica del funcionariado.

Funtzionarioei iruzur fiskalarekin lotutako gaiei buruz eman beharreko barne prestakuntza bereziaren sustapenari dagokionez, 2024. urtean 141 prestakuntza ikastaro eman dira, hau da, 1.294 ikastordu guztira.

II.6. BEZan Informazioa Berehala Emateko Sistema (IBES).

Balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa-sistema zergadun jakin batzuentzako (gehienak eragiketa bolumen nahiko handia duten pertsona juridikoak dira) berehalako informazio-hornidurari dagokionez (BIH), 2024an, foru-ogasunek elkarrekin lan egiten jarraitu dute zergadunek erabiliko dituzten web-zerbitzuak prestatzeko. (Ikus I.5.1 apartatua, 2024an trukaturako BIHren informazioaren bolumena ikuspuntua izateko).

Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko foru arauan xedatutakoaren arabera, subjektu pasiboan egin beharra da kontabilitatea eta ezartzen diren erregistroak erregelamenduz ezarritako moduan eramatea, hargatik eragotzi gabe Merkataritzako Kodean eta kontabilitateari buruzko gainerako arauetan xedatutakoa. Arau hori erregelamendu bidez garatzen da balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduaren 62. artikuluan. Horren arabera, enpresaburuek edo profesionalek eta balio erantsiaren gaineko zergaren beste subjektu pasibo batzuek erregistro-liburu hauek izan behar dituzte: emandako fakturen erregistro-liburua, jasotako fakturen erregistro liburua, inbertsio-ondasunen erregistro-liburua eta Batasunaren barruko eragiketa zehatz batzuen erregistro-liburua.

Aurrez aipaturako araudian erregulatutako erregistro-liburuak betetzeko moduak aldatuta handiak izan ditu bete beharra ezarri zenetik gaur egun arte, eta bat dator, jakina, teknologia berrien

En cuanto al fomento de la formación interna específica del funcionariado en temas relacionados con el fraude fiscal, durante el año 2024 se han impartido 141 cursos de formación, los cuales suman 1.294 horas lectivas.

II.6°. Suministro Inmediato de Información (S.I.I.) en el IVA.

En cuanto al suministro inmediato de información (SII), el sistema de gestión del Impuesto sobre el Valor Añadido, IVA, para determinados contribuyentes, en su mayor parte personas jurídicas con volúmenes de operaciones de cierta dimensión, en 2024 se ha seguido trabajando conjuntamente entre las Haciendas Forales en el desarrollo de los servicios web a utilizar por las personas contribuyentes, y se ha continuado con la adaptación de las herramientas de obtención y explotación de la información disponible a través del SII. (Ver apartado I.5°.1 a efectos de tener una visión del volumen de información del SII intercambiada en 2024).

La Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido dispone que los sujetos pasivos deberán llevar la contabilidad y los registros que se establezcan en la forma definida reglamentariamente, sin perjuicio de lo dispuesto en el Código de Comercio y demás normas contables. El desarrollo reglamentario de este precepto se realiza en el artículo 62 del Reglamento del Impuesto, en el que se establece que las y los empresarios o profesionales y otros sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido deberán llevar, con carácter general y en los términos dispuestos por el citado Reglamento, un Libro Registro de facturas expedidas, un Libro Registro de facturas recibidas, un Libro Registro de bienes de inversión y un Libro Registro de determinadas operaciones intracomunitarias.

La llevanza de los distintos libros registro regulados en la normativa citada anteriormente ha experimentado una profunda transformación desde el momento en que por primera vez se

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

Comisión de lucha contra el fraude fiscal

garapenarekin, enpresaburuek baliabide elektronikoak erabiltzean egon den aurrerapenarekin eta faktura elektronikoaren erabileraren pixkanakako ezarpenarekin. Beraz, gaur egun, oso enpresaburu eta profesional gutxi dira erregistro-liburuak betetzeko baliabide elektronikoak edo informatikoak erabiltzen ez dituztenak.

Iruzur fiskalaren kontrako borrokarako, dokumentu honetan adierazi den moduan, beharrezkoa da behar adina kalitatezko informazio izatea, eta ahalik eta lasterren lortzea. Alabaina, oreka egokia egon behar da egiaztatze- eta azterketa-jarduketak egokiro garatzeko behar den informazioa lortzearen eta horiek emateak zergapekoei dakartzkien zeharkako kostuen artean.

2024an informazio sistema berriaren bidez foru ogasunei emandako datuak hauek izan dira:

estableció la obligación hasta nuestros días, en consonancia, como no puede ser de otra forma, con el desarrollo de las nuevas tecnologías, el avance en la utilización de medios electrónicos por parte del colectivo empresarial y la implantación gradual del uso de la factura electrónica. De manera que, actualmente, es residual el número de personas empresarias y profesionales que no utilizan medios electrónicos o informáticos para la llevanza de los libros registro.

La lucha contra el fraude fiscal, tal y como se pone de manifiesto en este documento, exige disponer de información suficiente y de calidad, así como obtenerla de la forma más inmediata posible. No obstante, debe existir un correcto equilibrio entre la obtención de la información imprescindible para un adecuado desarrollo de las actuaciones de comprobación e investigación y los costes indirectos que el suministro de la misma supone para las personas obligadas tributarias.

Los datos suministrados a las Haciendas Forales durante el año 2024 a través del nuevo sistema de información han sido los siguientes:

Hilabete / Mes	Zergadunaren zenbakia / Nº de contribuyentes	Fakturen zenbakia / Número de facturas
Urtarrila / Enero	3.839	10.341.362
Otsaila / Febrero	3.270	10.199.178
Martxoa / Marzo	3.187	10.522.643
Apirila / Abril	3.158	10.817.170
Maitza / Mayo	3.127	11.037.902
Ekaina / Junio	3.099	10.371.046
Uztaila / Julio	3.099	11.000.741
Abuztua / Agosto	2.827	10.303.538
Iraila / Septiembre	2.906	10.585.562
Urria / Octubre	2.910	11.374.873
Azaroa / Noviembre	2.862	10.593.068
Abendua / Diciembre	2.852	10.886.597
Guztira / Total		128.033.680

III. ARAUTZEKO ETA KOBRATZEKO JARDUERAK. ACTUACIONES DE REGULARIZACIÓN Y COBRO.

2024. urtean iruzurraren kontrako borrokaren atal honetan lortutako emaitzak azaltzen hasi baino lehen, adierazi beharra dago aurten justizia auzitegiek emandako kondena bi epai irmotu direla Ogasun Publikoaren aurkako delituak daudela egiaztatu da-eta. Hori dela eta, 1.885.362 euroko zenbatekoa, interesak barne, zehaztu da erantzukizun zibilararen arloan.

Aldi berean, 2 kondena epai ere betearazi dira, eta, horretarako, 3.888.055 euro likidatu dira erantzukizun zibilararen arloan, interesak barne. Aldi berean, zenbateko horiek ez ezik, guztira 3 inguru urteko espetxe zigorrak ere ezarri zaizkie delitu horien erantzuleei. Era berean, honako zigor hauek ere ezarri zaizkie: sufragio pasiboa erabiltzeko desgaitasuna berezia; diru-laguntzak zein laguntza publikoak lortzeko eskubidearen (2 urtetik gora) eta zerga arloko edo Gizarte Segurantzako onurak edo pizgarriak eskuratzeko eskubidearen galera (2 urtetik gora); eta industrian edo merkataritzan jarduteko desgaitasuna, zigorrak dirauen bitartean.

Halaber, 2024. urtean, foru ogasunek txostenak bidali dizkiote Fiskaltzari, eta, bertan adierazitakoaren arabera, badirudi Ogasun Publikoaren aurkako 4 delitu egin direla, eta guztira 91.728.027 euro gehi interesak. Gainera, beste txosten batzuk ere egin dira, Fiskaltzari Ogasun Publikoaren aurkakoa ez beste era bateko delituak egin ahal izan direla jakinarazteko.

Aurreko lerroaldeetan azaldutakoari inolako kalterik egin gabe, hona hemen 2024. urtean honako jarduera hauetan lortutako emaitzak: kudeaketako eta ikuskaritzako organoek zergak ezartzeko garatutako prozeduren helburu diren zergadunen egoera egiaztatze, ikertze eta, hala

Antes de iniciar la exposición de los resultados obtenidos en este apartado de lucha contra el fraude durante el año 2024, es preciso señalar que este año han adquirido firmeza dos sentencias condenatorias de los Tribunales de Justicia por confirmarse la existencia de delitos contra la Hacienda Pública, fijándose una cuantía en concepto de responsabilidad civil de 1.885.362 euros, incluidos intereses.

A su vez, se ha procedido a la ejecución de 2 sentencias condenatorias, mediante práctica de liquidaciones por importe de responsabilidad civil de 3.888.055 euros, incluidos intereses. Además, se ha condenado a las personas responsables de estos delitos a penas de prisión cuya suma total roza los 3 años e igualmente a penas accesorias de inhabilitación especial para el ejercicio del sufragio pasivo, pérdida del derecho a obtener subvenciones y ayudas públicas por más de 2 años y del derecho a gozar de beneficios o incentivos fiscales o de la Seguridad Social, por más de 2 años, e inhabilitación para el ejercicio de industria o comercio durante el tiempo de la condena.

Asimismo, durante el año 2024 las Haciendas Forales han remitido al Ministerio Fiscal informes en los que han apreciado la existencia de indicios de la comisión de 4 delitos contra la Hacienda Pública, por un importe total de 91.728.027 euros. Además, se han formalizado otros informes para poner en conocimiento del Ministerio Fiscal la existencia de indicios de la comisión de otros delitos distintos del delito contra la Hacienda Pública.

Sin perjuicio de lo descrito en los párrafos anteriores, se detallan a continuación los resultados del año 2024 de las actuaciones encaminadas a la comprobación, investigación y, en su caso, regularización de la situación de las personas obligadas tributarias objeto de los procedimientos

badagokio, arautzeko garatutako jarduketak; eta zergadunek euren zerga zorrak borondatezko epealdian nahiz betearazpen epealdian ordaindu ditzaten diru bilketako organoek garatutako jarduketak, Euskadiko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratuan arlo horretan zehaztutako jarduketa arlo bereziak kontuan hartuta.

III. apartatu honetako hurrengo puntuetan jakinarazten diren zerga-zorraren zenbatekoez gain, Foru Ogasunetako ikuskapen-zerbitzuek informazioa lortzeko hainbat jardueretan eta prebentzio-jardueretan sortutako zorra agertu dute, guztira 24.083.312 eurokoa.

III.1. Enpresa taldeen kontrola.

Planean jasotzen zen moduan, enpresa talde handietan agertu ohikoagoak izaten diren gorabehera fiskalen gaineko kontrol espezifikoak egiteari dagokionez, 2024. urtean zehar, foru-ogasuneko aktibitatea mantendu egin da nazioartekotutako enpresa taldeek zergak saihesteko egiten dituzten jardunbide hauek jazaritzeko: hitzarmenen abusuak, eragiketen balorazioa edo lokalizazioa EAEko tributazioa murrizteko asmoz, hala nola zergak saihesteko helburua duten sozietate-egitura erabat artifizialen sorrera.

Puntu honetan, jarduketa hauek dira azpimarragarri:

a) EAEko zergadunak hautatzea, partaide direlako paradisu fiskaltzat hartzen diren edo zergak ordaindu behar ez diren herrialdeetan edota gure foru-ogasunekin zergari buruzko informazio-trukerik egiten ez duten lurraldeetan egoitza daukaten erakundeetan.

de aplicación de los tributos desarrollados por los órganos de gestión e inspección, así como de las actuaciones desarrolladas por los órganos de recaudación para obtener el pago por las personas obligadas tributarias, tanto en período voluntario como en período ejecutivo, de sus deudas tributarias, de acuerdo con las áreas específicas de actuación establecidas en este ámbito en el Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco.

Con carácter adicional a los importes de deuda tributaria descubierta que se informan en los puntos siguientes de este apartado III, los servicios de inspección de las Haciendas Forales han aflorado deuda con origen en actuaciones diversas de obtención de información y actuaciones preventivas por un importe global de 24.083.312 euros.

III.1º. Control de los grupos empresariales.

Tal y como se recogía en el Plan, en relación con la realización de controles específicos de las incidencias fiscales que con mayor riesgo se pueden manifestar en los grandes grupos empresariales, a lo largo de 2024 se ha mantenido la actividad de las Haciendas Forales dirigida a la persecución de las prácticas de elusión fiscal realizadas por grupos empresariales internacionalizados, a través del abuso de convenios o de la valoración o localización de operaciones con el objeto de reducir su tributación en el País Vasco, así como mediante la creación de estructuras artificiosas y cuyo objetivo sea la elusión fiscal.

En este punto pueden recogerse las siguientes actuaciones:

a) La selección de personas contribuyentes vascas que participan en entidades domiciliadas en países considerados paraísos fiscales, de territorios de nula tributación o que no dispongan de un efectivo intercambio de información tributaria con nuestras Haciendas Forales.

b) EAeko zergadunek Espainian kokaleku finkoa ez duten zergadun ez-egoiliarrei ordaindutako beste errenta batzuen tributazioaren arauzkotasuna egiaztatzen zuzendutako jarduketak; adibidez, eta, bereziki, kanon, royalty eta dibidenduen ordainketa.

c) Euskadin dauden eta Suitzako finantza-establezimendu iraunkorren bitartez jarduten diren talde multinazionalak erregularizatzen bideratutako jarduketak.

Hala, arrazoi hori dela eta 2024an amaitu diren jarduketaren emaitza osoa, 90 zergapekori dagokienez, 24.603.995 euroko kuota erregularizatuak izan dira.

III.2. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak edo erakundeek aitortutako etekinen kontrol integrala.

Euskadiko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratuak xedatu zituen honako jarduketa lerro hauek irizpide horren esparruan:

III.2.a.- Batez besteko jarduera-sektorearen edo negozio-ereduaren ohi baino etekin txikiagoak edo baxuagoak aitortzen dituzten zergapekoak.

Jarduketa-irizpide horri jarraikiz zergapekoak ikuskatzeko 1.401 prozedura bideratu dira eta, guztira, 24.419.046 euro kudeatu dira.

III.2.b.- Kreditu txartelen, eskudiruzko kobrantzea edo kontuan diru-sarreraren bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemara atxikitako gailuetako titularrak.

Informazioa lortzeko jarduketetarako zergadunak hautatu dira, 170. modeloaren bitartez (Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemara atxikitako enpresariak edo profesionalek egindako eragiketei buruzko urteko informazio aitortpena) lortutako informazioaren eta haiek errentaren gaineko zerga pertsonalari

b) Las dirigidas a la comprobación de la regularidad de la tributación de otras rentas satisfechas por personas contribuyentes vascas a contribuyentes no residentes en territorio español, que no disponen en el mismo de un establecimiento permanente, como, en particular, los pagos de cánones, royalties y dividendos.

c) Las encaminadas a regularizar a aquellos grupos multinacionales con presencia en el País Vasco, que operan a través de establecimientos permanentes financieros en Suiza.

Así, el resultado total de las actuaciones terminadas en el año 2024 por este motivo, en relación con 90 personas obligadas tributarias, ha sido de cuotas regularizadas por importe de 24.603.995 euros.

III.2º. Control integral de los rendimientos declarados por las personas o entidades que realizan actividades económicas.

El Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco dispuso las siguientes líneas de actuación en relación con este criterio:

III.2º.a.- Personas obligadas tributarias que declaren rendimientos anormalmente bajos o significativamente inferiores a la media del sector de actividad o del modelo de negocio al que pertenecen.

Se han tramitado 1.401 procedimientos de inspección respecto de personas obligadas tributarias por este criterio de actuación, con una gestión total de 24.419.046 euros.

III.2º.b.- Titulares de dispositivos adheridos al sistema de gestión de cobro a través de tarjetas de crédito, por cobros en efectivo o por ingresos en cuenta.

Se han seleccionado contribuyentes sobre quienes realizar actuaciones de obtención de información para que aclaren las incongruencias observadas entre la información obtenida a través del modelo 170 - Declaración informativa anual de las operaciones realizadas por los empresarios o profesionales adheridos al sistema de gestión de

buruzko aitorpenean aitortutakoaren artean antzemandako desadostasunak argitzeko.

Jarduketa irizpide horren ondorioz, zergadunak ikuskatzeko 77 prozedura bideratu dira, eta, horren ondorioz, 3.102.599 euro sartu dira.

